



BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA  
GIZARTE POLITIKETAKO SAILA  
Justizia Sailburuordetza  
Justizia Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES  
Viceconsejería de Justicia  
Dirección de Justicia

JARRAIBIDEA, JUSTIZIA ZUZENDARITZARENA,  
2022KO URRIAREN 18KOAN, ESPETXE-  
SAILKAPENAREN ARLOAN 10/2022 LEGE  
ORGANIKOAK SARTUTAKO ZIGOR KODEAREN  
ERREFORMARI BURUZKOA

INSTRUCCIÓN DE LA DIRECCIÓN DE JUSTICIA  
DE 18 DE OCTUBRE DE 2022, RELATIVA A LA  
REFORMA DEL CODIGO PENAL INTRODUCIDA  
POR LEY ORGÁNICA 10/2022 EN MATERIA DE  
CLASIFICACIÓN PENITENCIARIA.

Sexu-askatasunaren berme integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoak 2. eta 3. apartatuak aldatzen ditu, eta 4. apartatua gehitzen dio 36. artikulari. Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren 36. artikuluak idazkera hau izango du:

- Ezarritako espetxe-zigorrak bost urte baino gehiago irauten duenean, epaile edo auzitegiak kondenatura espetxe-tratamenduaren hirugarren graduan sailkatzea agindu ahal izango du, ezarritako zigorraren erdia bete arte.

- Nolanahi ere, ezarritako espetxe-zigorrak bost urte baino gehiago irauten duenean eta jarraian zerrendatutako delituak direnean, kondenatura ezin izango da espetxe-tratamenduaren hirugarren graduan sailkatu haren erdia bete arte:

a) Antolakunde eta talde terroristei buruzko delituak eta Kode honetako II. liburuko XXII. tituluko VII. kapituluan jasotako terrorismo-delituak.

b) Antolakunde edo talde kriminal baten barruan burututako delituak.

c) Kode honen II. liburuko VII bis tituluko delituak, biktima adingabea edo babes berezia behar duen desgaitua denean.

d) 181. artikuluko delituak.

e) Kode honen II. liburuko VIII. tituluaren V. kapituluko delituak, biktima hamasei urtetik beherakoa denean.

-c), d) eta e) letrako kasuetan, kondena bost urtetik gorakoa denean, kondenatura espetxe-tratamenduko hirugarren graduan sailkatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da sexu erasoagatik kondenatuen tratamendu programa baliatzeari buruzko berariazko balorazioa eta txostenia.

La Ley Orgánica 10/2022, de 6 de septiembre, de garantía integral de la libertad sexual modifica los apartados 2 y 3 y añade un nuevo apartado 4, en el artículo 36 del art. 36 de la Ley Orgánica 10/1995, de 23 de noviembre, del Código Penal, que queda redactado en los siguientes términos:

- Cuando la duración de la pena de prisión impuesta sea superior a cinco años, el juez o tribunal podrá ordenar que la clasificación del condenado en el tercer grado de tratamiento penitenciario no se efectúe hasta el cumplimiento de la mitad de la pena impuesta.

- En cualquier caso, cuando la duración de la pena de prisión impuesta sea superior a cinco años y se trate de los delitos enumerados a continuación, la clasificación del condenado en el tercer grado de tratamiento penitenciario no podrá efectuarse hasta el cumplimiento de la mitad de la misma:

a) Delitos referentes a organizaciones y grupos terroristas y delitos de terrorismo del Capítulo VII del Título XXII del Libro II de este Código.

b) Delitos cometidos en el seno de una organización o grupo criminal.

c) Delitos del Título VII bis del Libro II de este Código, cuando la víctima sea una persona menor de edad o persona con discapacidad necesitada de especial protección.

d) Delitos del artículo 181.

e) Delitos del Capítulo V del Título VIII del Libro II de este Código, cuando la víctima sea menor de dieciséis años.

-En los supuestos de las letras c), d) y e), si la condena fuera superior a cinco años de prisión la clasificación del condenado en el tercer grado de tratamiento penitenciario no podrá efectuarse sin valoración e informe específico acerca del aprovechamiento por el reo del programa de tratamiento para condenados por agresión sexual.



- Espetxe-zaintzako agitaritza judizialak, aldez aurretik gizarteratzearen aldeko pronostiko individualizatua eginez eta, hala badagokio, kondenatuaren inguruabar pertsonalak eta tratamendu berrezitzalearen bilakaera baloratuz, eta Fiskaltzari, Espetxeetako Erakundeari eta gainerako alderdiei entzun ondoren, zigorra betetzeko araubide orokorra aplikatzea erabaki ahal izango du, aurreko zenbakian jasotako kasuetan izan ezik.

- Nolanahi ere, espetxe-zaintzako agitaritza judizialak, dagokionaren arabera, erabaki ahal izango du, Fiskaltzaren, Espetxeetako Erakundeen eta gainerako alderdien txostena jaso ondoren, oso gaixo dauden eta sendaezinezko pairamenak dituzten kondenatuak eta hirurogeita hamar urteko pertsonak hirugarren gradura aurreratzea, arrazoi humanitarioengatik eta duintasun-pertsonalarengatik, bereziki haien arriskugarritasun txikia balioetsita .»

Ikus daitekeenez, erreforma honek espetxe-sailkapenean dituen ondorioek bi eremuri eragiten diente: segurtasun-aldia deritzona eta aurrerapen-proposamenekin batera joan behar duen informazioa.

## SEGURTASUN-ALDIA.

Erreformaren ondoren, bost urtetik gorako zigorretan hirugarren gradura iristeko kondenaren erdia azkentzeko betebeharrak erregulazio berdinari eusten dio, baina segurtasun-aldi deritzonaren aplikazioa giza salerosketako delituengatik kondenatutako pertsonei zabaltzen zaie, biktima adingabea edo babes berezia behar duen desgaitua denean. (ZKren VII bis titulua).

Segurtasun-aldia aplikatzea dakarten gainerako delitu-kasuek bere horretan jarraitzen dute, baina 13 urtetik 16 urtera igo da biktimaren adina prostituzioari, sexu-esplotazioari eta adingabeak galbidean jartzeari buruzko delituetan (V. titulua, ZKren VIII. titulua)

Horrela bada, erregulazioaren laburpen-koadroa honako hau da:

ARAUBIDE BEREZIAI	ZIGORRAK ETA DELITUAK	ARAUBIDE OROKORRA APLIKAZIOA
HAUTAZKO SEGURTASUN- ALDIA	Bost urtetik gorako edozein zigor, sollik epaia eman duen organoak expresuki hala agindu duenean.	JVPren ebazpen bidez, TBk proposatuta, gizarteratzearen aldeko pronostiko individualizatua egin-ondoren, eta, hala badagokio, kondenatuaren inguruabar pertsonalak eta tratamendu berrezitzalearen bilakaera baloratuz.

-La autoridad judicial de vigilancia penitenciaria, previo pronóstico individualizado y favorable de reinserción social y valorando, en su caso, las circunstancias personales de la persona condenada y la evolución del tratamiento reeducador, podrá acordar razonadamente, oídos el Ministerio Fiscal, Instituciones Penitenciarias y las demás partes, la aplicación del régimen general de cumplimiento, salvo en los supuestos contenidos en el apartado anterior.

- En todo caso, la autoridad judicial de vigilancia penitenciaria, según corresponda, podrá acordar, previo informe del Ministerio Fiscal, Instituciones Penitenciarias y las demás partes, la progresión a tercer grado por motivos humanitarios y de dignidad personal de las personas condenadas enfermas muy graves con padecimientos incurables y de las personas septuagenarias, valorando, especialmente, su escasa peligrosidad.»

Como se puede ver las consecuencias que esta reforma tiene en el ámbito de la clasificación penitenciaria afectan a dos ámbitos: el llamado periodo de seguridad, y la información que ha de acompañar a las propuestas de progresión.

## PERIODO DE SEGURIDAD.

Tras la reforma, la obligación de extinguir la mitad de la condena para el acceso al tercer grado en penas superiores a cinco años mantiene la misma regulación si bien extiende la aplicación el llamado periodo de seguridad a personas condenadas por delitos de trata de seres humanos, cuando la víctima sea una persona menor de edad o persona con discapacidad necesitada de especial protección. (Título VII bis CP)

Se mantienen el resto de supuestos delictivos que determinan la aplicación del periodo de seguridad, si bien se incrementa de los 13 a los 16 años la edad de la víctima en los delitos relativos a la prostitución y a la explotación sexual y corrupción de menores (Cap.V Título VIII CP)

Así pues, el cuadro resumen de la regulación es

REGIMEN ESPECIAL	PENAS Y DELITOS	APLICACION RÉGIMEN GENERAL
PERIODO DE SEGURIDAD FACULTATIVO	Cualquier pena superior a 5 años, únicamente cuando el órgano sentenciador lo haya ordenado expresamente.	Por resolución del JVP, a propuesta de la JT, previo pronóstico individualizado y favorable de reinserción social y valorando, en su caso, las circunstancias personales de la persona condenada y la evolución del tratamiento reeducador.



NAHITAEZKO SEGURTASUN- ALDIA	Terrorismo- delituak	ZKren XXII. tituluko VII. Kapitulua	
	Antolakunde edo talde kriminal baten barruan egindako delituak	Konden- ebazpenean inguruabar hori jasotzen duen edozein delitu.	
	Gizakien, adingabearen edo desgaitasuna duen pertsonaren salerosketaren delituak.	VII bis titulua	Ez dagokio. Inola ere ez da hirugarren gradura igarotzeko proposamenik egingo kondenaren erdia amaitu baino lehen.
	16 urtetik beherakoei egindako sexu-erasoa	ZKren 181. art.	
	Prostituzioari, sexu- esplotazioari eta adingabeak galbideratzeari buruzko delituak	Kap. V. titulua ZKren VIII. titulua	

PERIODO DE SEGURIDAD PRECEPTIVO	Delitos de terrorismo	Capítulo VII del Título XXII CP	No procede. En ningún caso se elevará propuesta de progresión a tercer grado antes de la extinción de la mitad de la condena
	Delitos cometidos en el seno de una organización o grupo criminal	Cualquier delito en el que se aprecie en esta circunstancia en la resolución condonatoria	
	Delitos de trata de seres humanos, de menor de edad o persona con discapacidad.	Titulo VII bis	
	Agresión sexual a menor de 16 años	Art.181 CP	
	Delitos relativos a la prostitución y a la explotación sexual y corrupción de menores	Cap.V Título VIII CP	

Arau hau aplikatzeko gainerako irizpideak eta jarduteko prozedurak Justizia Zuzendaritzaren Aginduak onartutako Espetxeak Kudeatzeko Eskuliburuan jasotakoak dira.

ZKren 36.2 artikulua aplikatzea egokia ez den kasuetan, aurkako zigor-legearen atzeraeraginik ezaren printzipioa dela eta, zigorren erdia hartuko da erreferentziatzat, sailkapen-aldagai gisa, betetze-fasea baloratzeko prozesuan.

Lege-aldeketa kontuan hartuko da kudeaketa-bulegoek eta juristek PCD ereduan betebehar horren aplikazioa adieraztean duten segurtasun-aldiaren espelte-egoera SIPen jasotzeko.

#### DERRIGORREZKO TXOSTENA.

Errudunak ZKren 36.2 artikuluko c), d) eta e) letratan deskribatutako delituengatik kondenatutakoei tratamendu-programa baliatzeari buruzko balorazio eta txosten espezifikoa eskatzen da, hau da:

- Gizakien salerosketaren delituak, biktima adingabea edo babes berezia behar duen desgaitua denean.
- 16 urtetik beherako adingabeekin egindako sexu-egintzak.
- Prostituzioari eta sexu-esplotazioari buruzko delituak, bai eta adingabeak galbidean jartzeari buruzkoak ere, biktima 16 urtetik beherakoa denean.

El resto de criterios de aplicación de esta norma, así como los procedimientos de actuación, son los contenidos en el Manual de Gestión Penitenciaria aprobado por Orden la Dirección de Justicia.

En los casos en que no proceda la aplicación del art.36.2.CP por el principio de irretroactividad de la ley penal desfavorable, se tendrá en todo caso en consideración la mitad de la pena como referencia en el proceso de valoración de la fase de cumplimiento como variable de clasificación

Se tendrá en cuenta la modificación legal para hacer constar en el SIP la situación penitenciaria de período de seguridad por parte de las Oficinas de Gestión, así como por parte de los y las juristas al señalar la aplicación de esta obligación en el Modelo PCD.

#### INFORME PRECEPTIVO.

Se exige valoración e informe específico acerca del aprovechamiento por el reo del programa de tratamiento para condenados por delitos descritos de las letras c), d) y e) del art.36.2 CP, es decir:

- Delitos de trata de seres humanos, cuando la víctima sea una persona menor de edad o persona con discapacidad necesitada de especial protección.
- Delitos consistentes en actos de carácter sexual con menor de 16 años.
- Delitos relativos a la prostitución y a la explotación sexual, así como de corrupción de menores, cuando la víctima sea menor de 16 años



Arauak praktika ia unibertsala indartzen du Tratamendu Programa Espezifikoa behar duten delituengatik kondenatutako pertsona horien eta beste batzuen aurrerapen-proposamenetan.

Erreforma indarrean sartzen denetik aurrera, eskakizun horrek eragiten dien barneratuaren aurrerapen-proposamenei txosten espezifiko bat erantsiko zaie. Txosten horretan interbentzioaren emaitzen ebaluazioa jaso beharko da, tratamendu-programa gauzatu duen profesionalak emana, bai eta azaldu behar dituen bere espezialitateko gainerako aldagaiak ere.

La norma no hace sino reforzar lo que es práctica casi universal en las propuestas de progresión de estas y otras personas condenadas por delitos que requieren un Programa Específico de Tratamiento.

A partir de la entrada en vigor de la reforma se agregará a las propuestas de progresión de personas internos a los que les afecte esta exigencia, un informe específico que deberá contener la evaluación de los resultados de la intervención, facilitada por ella profesional que ha llevado a cabo el programa de tratamiento, además del resto de variables propias de su especialidad que deba exponer.

En Vitoria-Gasteiz, a 18 de octubre de 2022.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 18a.

EL DIRECTOR DE JUSTICIA  
JUSTIZIAKO ZUZENDARIA